

KOMUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA



UN WATER
19 de Noviembre
DÍA MUNDIAL DEL RETRETE

Datorren azaroaren 19an Komunaren Nazioarteko Eguna izango da, zeinak gogorarazten baitigu garrantzitsua dela saneamendu eta higiene zerbitzu egokiak izateko eskubide unibertsala betetzea, 2030 Agendako Garapen Iraunkorreko Helburuekin bat eginda, Vitoria-Gasteizek ere horrekin bat egiten duelarik.

Guri dagokigunez, ur zikinen saneamendu eta arazketarako kalitatezko zerbitzu bat dugunez, AMVISAK egun horretarako zabaltzen duen mezuaren helburua da **herritarrak kontzientziaztea komuneko erabilera desegokiak desagerrarazteari buruz, askotan komuna zakarrontzi bihurtzen dugulako**. Krispiñako UZAn etengabe agertzen dira janari hondarrak, zigarrokinak, pixoihalak eta garbitasun pertsonaleko beste produktu batzuk, berez zakarrontzira bota beharrekoak direnak. Hustubidean olioak eta produktu toxikoak ere xurgatzen dira. Azken horiek, medikamentuekin batera, azkenean gure ibaietako ura kutsatzen dute, ezin direlako tratamendu konbentzionalekin deuseztatu.

Arrazoi horiengatik guztiengatik gonbidatzen du AMVISAK gogoeta egitera, hondakinen saneamendu eta kudeaketaren inguruan ditugun praktiken inguruan.

BETI DAGO ZABORRA UZTEKO AUKERA BAT, ETA KOMUNA EZ DA HORIETAKO BAT.

UNE arau bat argitaratu da botatzeko toallatxoetarako

Hiriko ur zerbitzuen operadoreak aspaldi ari dira kezka adierazten toallatxoak komunetik behera botatzea ohitura orokortua delako. Ingurumenean duen inpaktu handiaz gain, buxadura handiak sortzen dituzte estolda sarean, eta urtean milaka milioi euroko gastua eragiten dute mundu osoan, hoditeria eta hodi biltzaileak mantentzeko. Komunetik behera zer bota daiteke eta zer ez? Galdera horri argi erantzutea funtsezkoa da horrelako arazoak ekiditeko.

Arrazoi hori tarteko, Ur Hornidura eta Saneamenduko Espainiako Elkarteak (AES) gidatutako Batzorde Tekniko batek UNE 149002 estandarra aurkeztu zuen, apirillean: "Komunetik behera bota daitezkeen produktuak onartzeko irizpideak". Uraren

eta paperaren Espainiako sektoreek sustatutako arau bat da, zeinean adierazten baita **toallatxo hezeak eta komunetik behera bota daitezkeen bestelako produktu batzuek hainbat baldintza bete behar dituztela, euren osagaiei eta sedimentatu, sakabanatu, desintegratu eta biodegradatzeari dagokionez**. Halaber, arauak zehaztu egiten du **nola etiketatu behar diren eta zer mezu helaraz daitezkeen komunean erabili ohi diren horrelako produktuak komertzializatzean**, helburua izanik inplizituki edo esplizituki botatzeko moduko produktutzat aurkezten diren horiek komunean amaitu ez dezaten, ez dituztelako eskatutako baldintzak betetzen eta, ondorioz, ez dutelako Ingurumena errespetatzen.

AMVISAK hiri uraren sektoreak bultzatzen duen sentsibilizazio kanpainari atxikitzeo adierazpena sinatu du, "**Ez elikatu estoldetako munstroa**", komunetik botatzeko egokiak ez diren produktuei buruz.

Ondorioz, toallatxoaren eta komuneko papera ez bezalako beste produktu batzuen erabilera dela eta, herritarrei eskatzen diegu egiaztatu dezatela horiek egiazki botatzeko modukoak direla, etiketetako informazioari erreparatuta, eta onartutako araua betetzen duela egiaztatzen ez duen produktu oro ez dezatela komunetik behera bota. Zalantzarik egonez gero, **aukerarik onena beti da zakarrontzira botatzea**.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org